

TXOSTENA

Hala xedatzen baitu 133.1 artikuluan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru sektore publikoari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeak, erregelamendu proiektu bat egin aurretik, kontsulta publiko bat sustatuko da, Nafarroako Gobernu Irekiaren Atariaren bidez, non jasoko baita zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta ordezkariak handieneko erakundeek, honako hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauemaileak eta arauemaile ez direnak).

Dena dela, artikuluko 6. apartatuak ezartzen du halako kontsulta publikoa ez egitea ere badagoela, baldin eta arau-proposamenak eragin esanguratsurik ez badu jarduera ekonomikoan, arauaren xede diren herritarrei betebeharrak garrantzitsurik ez badakarkie edo arautzen dituen aspektuak partzialak badira.

Alde horretatik, kontuan hartu behar da 195 eredu onesten duen foru aginduaren proiektua bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 133. artikuluko 6. apartatuaren edukiarekin hitzez hitz, proiektua egin aurreko kontsulta publikorik ez egiteko baldintzak betetzen baitira: arau-proposamenak ez du eragin esanguratsurik jarduera ekonomikoan, eta arautzen dituen aspektuak partzialak dira arlo horretan.

Foru aginduaren proiektua Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean argitaratuko da, eta Gardentasunaren eta Gobernu Irekiaren Atarian, herritarrek horren berri izan dezaten.

Iruñean, 2022ko urtarrilaren 10ean.

Elektronikoki sinatu du dokumentu hau Cristina Sarasa Villaverdek, Arauen Garapen eta Aholkularitza Juridikorako Zerbitzuko zuzendariak.